

## **BISITAK ETA IBILALDIAK**

### **Pasaporteak ¡Museatu! eta bidaiatu**

**Museoak eta bildumak**  
**2018/04/20 - 2018/10/20**

Bidaia bat prestatzea inoiz ez da hain erraza izan. Pasaporteak hiri eta herri berezietara txango motzak planifikatzea ahalbidetuko dizu eta arte garaikide, arte eder, arkeologia, etnografia eta pertsonaia bereziei buruzko museoetan esperientzia paregabeak bizitzeko aukera izango duzu. Anitzak eta kalitate onekoak diren bildumak eta testigantzak agertzen dituzten museo xarmangarriak. Eta hori guztia, Nafarroatik atera gabe.

Taldean edo familiarekin, bikotearekin edo bakarrik, hamahiru museo eta bilduma hauek zain dituzu haien bilduma eta jardueraz zurekin gozatzeko. Gainera, hiru baino gehiago bisitatu badituzu, sariak lor ditzakezu.

Pasaporteak pertsonala eta/ edo familiarra da. Doakoa da eta hamahiru zentroetan eskuratu daiteke sarreran. Erakunde bakoitzaren zigilua bisita egindakoan eskuratuko da.

### **Katedraleko klaustroaren lanak**

**Iruñeko katedrala**  
**Igandea / 10:00, 11:00, 12:00.**

Bisitak doakoak dira, eta hiru ordu hauetan egiten dira: 10:00, 11:00 eta 12:00etan. Ordubeteko iraupena dute, gutxi gorabehera. 14 urtetik gorakoak izan behar dute bisitariak, eta mugikortasun-arazorik ez izan. Oinetako lau eta erosoak eraman beharko dituzte, obrako aldamiotik ibili beharko baitute.

## **DANTZA**

### **Kirolak**

**Mena plaza (Gares)**  
**Ostirala | 20.00etan**

**KULTUR**

Kirolak 8 euskal kirolean oinarritutako koreografia bat dat; kirol horiek landa-ingurunean jardueretan dute jatorria, eta, dantza garaikidearen bidez, interpretazio berri bat ematen zaio euskal kulturari.

### **Erakutsi bide diren dantzak**

**Lodosa. Kultura Etxea**  
**Larunbata / 19.00etan**

**KULTUR**

Larratz Dantzari Taldea.

Gure ikuskizunean, folklore tradizionalean oinarritutako dantza-sorta bat aurkezten dugu museo bateko margolan-erakusketa bat balitz bezala.

Museoko gidariak ikusten dituzten objektuak eta margolanak azaltzen dizkie bisitariei. Pertsona horien artean, aitatxi bat eta haren bilobak ditugu. Aitaxi horren kontakizunaren bitartez, haurrek ikusten dute margolanak ireki egiten direla barruan gordetako historiari bidea ematen dioten ateak balira bezala.

Bisita eta dastatzea Perón kontserba- industrian

11:00 / 1 ordu

Perón kontserba-industria Prezioa: dohainik

Erreserbak:

T. 948 69 45 02 c.peron@terra.com. Aurrez eman behar da izena ezinbestez

## **ERAKUSKETAK**

### **VACA proiektuko**

#### **Uharte Zentroa**

Hezkuntza komunitateak VACA proiektuan buruturiko prozesua, Vacamurru espazioan egongo da ikusgai uztailaren 1a arte.

### **Pablo Sarasate-Alberto Huarte: adiskidetasun baten testigantzak.**

#### **Nafarroako Errege Artxibo Nagusia**

**2018/06/18 - 2018/09/14**

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak, Pablo Sarasateren eta Alberto Huarteren inguruko erakusketa zabaldu du, Huarte Solchaga familiak utzitako musika agiriak osatuta. Dokumentu horiek, belaunaldiz-belaunaldi babestuak izan dira familiak Iruñeako Kale Nagusian duen etxean, Huarte ikastetxearen egoitza izan zen horretan.

### **José Latova. Argazkigintza arkeologikoan 40 urtez**

#### **Nafarroako Museoa**

**2018/06/13 - 2018/09/23**

Irailaren 23ra arte egongo da ikusgai argazkilari honen erakusketa zabala, 100 bideo eta argazkiz osatutakoa. Proposamen honek, argazkigintza arkeologikoaren maisu handi hau omentzen du.

José Latovak berak hitzaldi bat eskainiko du gaur bertan, 19:30tan eta Nafarroako Museoa.

Esan bezala, erakusketak Latovaren lana zeharkatzen du, Kultura Ministerioko Arkeologia sailaren zuzendariordea izaten hasi zenetik, bertan argazkilari bezala aritu zen 1976 eta 1989 bitartean, gaur egun arte. Era berean, ezin ahaztu, Latova estatu mailako lan arkeologiko nagusietan aritu izan dela.

### **Futbola Nafarroan**

**2018/06/01 - 2018/06/30**

Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak, Nafarroako Futbol Federazioaren sorreraren 90. urteurrenarekin eta 2018ko Munduko Futbol Txapelketarekin bat, mikroerakusketa bat eskainiko dio ekainean zehar Nafarroako futbolaren historiari. Hainbat klubetako erregelamenduak eta talde nafar nagusietako batzuek jokaturako partidu eta ospatutako ekitaldietako argazkiak ikusi ahalko dira han.

Sarrera librekoa eta doakoa da "Futbola Nafarroan", eta Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko beheko galerian egongo da ikusgai, ekainean, 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara, asteko egun guztietan, asteburuak eta jaiegunak barne.

### **Arma isilak gerra lasaietarako**

#### **Oteiza Museoak**

**2018/06/01 - 2018/09/30**

Oteiza Museoak berreskuratu egin du Interpretazioak programa, Imanol Marrodan artistak Alzutzako zentroan egin duen "Arma isilak gerra lasaietarako" erakusketa-

proiektuarekin.

Oteizaren obrarekiko topaketa-gune bat sortu nahi duen programako hamargarren interbentzioa da jada. Programa bera museoko bigarren solairuan garatzen da, erakusketa iraunkorrekiko solasean, eta Oteiza Museoak Eguesibarko Udalarekiko elkarlanean produzitu erakusketa-proiektu hau ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean garatuko da.

## KONFERENTZIAK

### [Makie urrean egindako laka Teknika Tradizionala](#)

**Nafarroako Museoa (Areto Nagusia)**

**Asteartea / 19.30etan**

Ondasun Immaterialak jorratzen dituen zikloaren barruan eskaintzen da hitzaldia, tradiziozko teknika japoniar hau ezagutzeko. Lan egiteko modu honetan Altxor Nazional Bizia den Kazumi Murose maisua izango da hizlaria.

## KONTZERTUAK

### [Coro Góspel Alaikapela Abesbatza](#)

**Udal Plaza (Ujué)**

**Osteguna / 20.00etan**

## KULTUR

15 urte baino gehiagoko ibilbidea duen abesbatza bat gara. Gure izena Akapela (a capella) eta Alaitasuna hitzen arteko konbinazioa da eta laguntasunaren, senidetasunaren eta musikarekiko eta, bereziki, kantuarekiko maitasunaren espiritua bildu nahi du. Errepertorio berritzailea aurkeztu nahi dugu, Gospelez eta beltzen musika espiritualez bakarrik osaturik, ikusleak harritu eta kutsatzeko, unea bizi dezaten.

## TAILERRAK

### [III Zinema Tailerra super 8mm-tan](#)

**Nafarroako Filmotekan**

**Astelehena - Ostirala**

Ikus-entzunezko lanetan murgiltzera bideratutako kurtso honetako parte hartzaileei super 8mm-tako kamera bat utziko diegu istorio motz bat filmatu dezaten. Film motzaren estrukturak fotograma bakoitza pentsaraztera behartuko ditu. Filma Nafarroako Filmotekaren proiektzio aretoan erakutsiko da kurtsoa bukatzerakoan.

### [Origami tailerra](#)

**Astelehena, asteazkena, osteguna, ostirala / 11.00etan**

María eta Verónicak paperezko figurak sortzen irakatsiko dizute.

6 eta 14 urte bitartekoentzat

Sormen-idazketa tailerra, Regina Salcedoren eskutik

### [Nafarroako Liburutegia](#)

**Asteazkena /18.00etan**

## **12 eta 17 urte bitarteko neska-mutilentzat.**

Idaztea gustuko baduzu, tailer honetan parte hartzera gonbidatzen zaitugu; doakoa da, baina izena emango duten lehengo hamabiek baino ezin izango dute parte hartu, Izen-emateak, ekainaren 4tik, Nafarroako Liburutegiko halleko mostradorean. Ekainak 13, 20 eta 27 (18:00-20:00)

### **(Des)Berdinkeria Kultural**

**Artxibo nagusia**

**Osteguna / 09.00etan**

3 Think Tank Laborategia.

Laura Freixas.

CNK pentsamendu-foroa da, Nafarroako kulturari lotutako ideiei buruzkoa. Gizarte zibilaren eta administrazio publikoen partaidetza-plataforma da, zeinean ezagutzak eta ideiak partekatzen baitira gaiaren araberrako foroetan parte hartuta.

### **Toisoiaren ebasketa, escape room-ean**

**karlismoaren Museoan (Estella-Lizarra)**

**2018/05/18 - 2018/10/14**

Karlismoaren Museoak dei egiten dizue parte hartzera Toisoiaren ebasketa, escape room-ean. Museoen Nazioarteko Egun eta Gauaren kariatara eginen da, 2018ko maiatzaren 18an, eta irekita egonen da 2018ko urriaren 10era arte.

### **Ikerketa proiektuak garatzeko egoitza**

**Huarte Arte Garaikideko Zentroa**

**2018/04/30 - 2018/09/30**

Komisariotzaren inguruko ikerketa proiektuak garatzeko bi egoitza deialdi luzatzen ditu Uharte Zentroak (bata, lekuko agenteei zuzendua, eta bestea, bertakoak ez direnentzat). Helburua, praktika honen alderdiak Nafarroan zehar barreiatzea da.

### **Artxiboa plazara!**

**2018/05/18 - 2018/07/01**

Nola harremantzen da komunitate bat iraganean ekoiztutako irudiekin? Uhartera gerturatzeko gara irudi filmikoen bilketa bat egin eta artxibo bat sortzeko asmoz. Interes pertsonaletik abiatzen gara, irudi ekoizle izanik, erabili gabe gelditu den material filmikoa Bildu eta ber aktibatze asmoa dugu ikuskatze kolektibo eta bideo sorkuntza tailerren bidez.

## **ZINEMA**

### **Fiesta de San Fermín / Sergio / Pioneras III**

**Nafarroako Filmoteka**

**Osteguna / 20.00etan**

“Fiesta de San Fermín” (Estatu Batuak, 1968)

Argazkigintza (C) eta gidioia: Harry E. Babbitt

“Sergio” (Espainia, 2017)

Zuzendaritza: Carlos Caro

“Pioneras III” (Espainia, 2018)

Zuzendaria: Iñaki Redín

## **Los últimos días del mundo**

[Nafarroako Filmoteka](#)

**Ostirala / 20.00etan**

2009an bi Sitges sariren irabazlea, “Los últimos días del mundo” apokalipsia dramarik Gabe erakutsi nahi duen zientzia fikziozko filma da, errealismo eta umorea baliatuz.

Zuzendaritza: Arnaud Larrieu, Jean-Marie Larrieu.